



EKHI LAMBERT
INBASIOAK - LES INVASIONS

1-Harresia

Galdu hiza
behatuz putzu horren sakonera
Aintzindari, agintari
belzten dituk iturriak

Aurpegia apaindurik
kateen dirdiran, mututzen dituk denak
Kalakari, kontalari
oi gudari, zeren kari

Galdu hiza
behatuz putzu horren sakonera
Zaldun zuri, zoragarri
antzezleri, predikari

Galdu hiza
petik aztaparka, jalgi zauk azalera harresia
Aintzindari, agintari
kalakari, oi gudari

1-Le rempart

*T'es-tu égaré
à contempler ce puits sans fond
Meneur, commandeur
tu noircis les sources*

*Le visage orné
dans l'éclat des chaînes, plus un mot
Orateur, conteur
oh combattant, porté par aucun vent*

*T'es-tu égaré
à contempler ce puits sans fond
Cavalier blanc, tant admirable
acteur, prédicateur*

*T'es-tu égaré
les ongles rampent, le rempart se dresse
Meneur, commandeur
orateur, oh combattant*

2-Irakin

Edaria distilatu
urak kutsatu
zain egon
Ta zabaldu
nahasdura

Zola tapatu
bota kantu
Sabela bete, maitale
irakin, buru egin

Goretsi tzarkeria
zilar bizia
Jalgi gain hartara
libertatera

Edaria distilatu
urguilua ximikatu
Dena funditu
haragia irentsi

Goretsi tzarkeria
zilar bizia
Jalgi gain hartara
libertatera

Hiri-bazter urrunak
jo ditu ilargiak
Goizak al zuen jakin
irakin, buru egin

Irakin edaria
goretsi tzarkeria
Jalgi gain hartara
libertatera

2-Bouillir

*Distiller
contaminer les eaux
veiller
Puis répandre
la confusion*

*Se faire le fond
lancer un chant
Se garnir la panse, l'amant
bouillir, tenir tête*

*Exalter la méchanceté
le vif-argent
R ressortir par là-haut
vers la liberté*

*Distiller
piquer la vanité
Tout démolir
engloutir la chair*

*Exalter la méchanceté
le vif-argent
R ressortir par là-haut
vers la liberté*

*Les banlieues lointaines
frappées par la lune
L'aube aurait-elle su
bouillir, tenir tête*

*Bouillir
exalter la méchanceté
R ressortir par là-haut
vers la liberté*

3-Urrea

Hitzak zidan azala zilatu
hitzak damurik ez baitu
horrentzat nuen ba giltzapetu

Urrezko gerruntze bat josi
ta hitz kuttuna bezi
Geldi-geldi
so supazterrari

Urrea hitzetan
hortzetan
Urrea zainetan
jaunttoen azalean

Urrea hitzetan
hortzetan
urrea airean
Urrea kaperetan
kanpoan, barnean
supazter beroan

Hizkiek xixtatu hizkuntza
joan-jinak, mugaezinak
Hitz hilak, xixtuak
hitz arruntak

Urrea hitzetan
hortzetan
Urrea zainetan
erauntsian, errautsean
supazter beroan

Urrea hitzetan
lagunarte isiletan
Urrea ohituran
hilerrietan
supazter beroan

3-Lòr

*Un mot m'a troué la peau
un mot sans remords
c'est assez pour l'enfermer*

*D'un corset d'or fraîchement cousu
j'ai revêtu mon mot favori
Immobile
les yeux figés sur le feu*

*L'or dans les mots
dans les dents
L'or dans les veines
dans la peau des petits seigneurs*

*L'or dans les mots
dans les dents
l'or dans l'air
L'or dans les chapelles
dedans, dehors
dans le feu qui dort*

*Une langue piquée de lettres
les allers et venues, incessants
Les mots éteints, les sifflements
les mots courants*

*L'or dans les mots
dans les dents
L'or dans les veines
par averse, dans la poussière
dans le feu qui dort*

*L'or dans les mots
dans les amitiés muettes
L'or dans les usages
dans les cimetières
dans le feu qui dort*

4-Ezpata

Lagunok jasan genuenaren doinua
ahantzteak ez dikek desegin zalantza
Etsipenaren kopan urturik labana
itxurak elkita jalgi zaidak nigarra

Uros hintaïke
lagun zaharra
sutondo batean
utzirik kemena

Dolurik bahu
lagun zaharra
larrosen azpian
dakarkiat ezpata

Hire xede sakonena izan ote da
eguzkitan hik eraiki hien dorrea
Laguntasunak hortaz ez dikek axola
betekizunez itzaltzen doa pindarra

Uros hintaïke
lagun zaharra
sutondo batean
utzirik kemena

Dolurik bahu
lagun zaharra
larrosen azpian
dakarkiat ezpata

4-Le glaive

*Une mélodie de ce que nous avons enduré
l'oublier ne dissipera pas le doute
Une lame fondue par la résignation
de par les masques tombent les pleurs*

*Sûrement es-tu heureux
mon vieil ami
Ta ferveur délaissée
au coin d'un feu*

*Si tu venais à avoir du regret
mon vieil ami
Sache que sous ces roses
je porte le glaive*

*Ton souhait le plus profond
était-il d'édifier une tour au soleil
L'amitié n'en a que faire
le devoir lui, étouffe l'étincelle*

*Sûrement es-tu heureux
mon vieil ami
Ta ferveur délaissée
au coin d'un feu*

*Si tu venais à avoir du regret
mon vieil ami
Sache que sous ces roses
je porte le glaive*

5-Bat egin

Hirien burrunban
harrotzen jendetza

Amets zipilduak

Zapalduen ausikia

Puskaturik, bat egin nahi
Baimen, barkamen baten eske
niz itzali

Lurrean errestan noa
belarritik zainetara
oihartzuna zabaltzera

Puskaturik, bat egin nahi
Baimen, barkamen baten eske
hizlariak nute lorez estali

Hirien burrunban
harrotzen jendetza

Amets zipilduak
zaituak
banatuak
deseginak

5-Ne faire qu'un

*Dans le vacarme des cités
s'agite le peuple*

Les rêves calcinés

La morsure des opprimés

*Morcelé, je ne souhaite faire qu'un
Mendiant une autorisation, un pardon
je me suis éteint*

*Je me traîne à terre
des oreilles aux artères
je répands l'écho*

*Morcelé, je ne souhaite faire qu'un
Mendiant une autorisation, un pardon
les orateurs m'ont couvert de fleurs*

*Dans le vacarme des cités
s'agite le peuple*

*Les rêves calcinés
divisés
distribués
défaits*

6-Zentinelak

Ihesaldietaz ase
armen ebasteaz ere
Urrun, estekak
faltan bota ditun

Ito bahintz bezala
edan dun itsasoa
Galdu direnen gisa
itzulika

Ofrenta dunala falta
hurbilduko ote hiza
Zentinelarengana

Ihesaldietaz ase
armen ebasteaz ere
Urrun, estekak
faltan bota ditun

Larrua urraturik
jantzi hituen penak
garaipen hondatuak

Bazterturik itxurak, arrangurak
begiratu hiu Zentinelak
Harresietatik at deika
ari dun urre gorria

6-La Sentinelle

*Lassée des escapades
des armes volées
Au loin les liens
ont fini par te manquer*

*Telle une naufragée
tu as avalé un océan
Tels les égarés
de tours en détours*

*Sans offrande aucune
oseras-tu t'approcher
de la Sentinelle*

*Lassée des escapades
des armes volées
Au loin les liens
ont fini par te manquer*

*La peau lacérée
tu avais revêtu tes peines
tes victoires gâchées*

*Réloquées les allures, les inquiétudes
la Sentinelle t'a dévisagée
Par-delà les remparts
hurle l'or rouge*

7-Treina

Nere treinean igan hadi, ez doa nihune
ezin ase, ezin da bete

Nere treinak jasanak hainbat eraso
sasoi luzea jin orduko

Jantzi ilunetan uhinak dabilta
gesaltze zunbaiten lurrina

Ziztuka treina, ta su eskopetak
suziri zirina
Eramaiten gaitu leizetik
zintzilik zerura

Zumardietan, arduragabe doa
ardatza tinko, urrunera

Nere treinean islatzen itzala
makinatik azken bagoiera

Nere treinak ez din berantik
nahiz orenak dauden galdurik

Iratzetaik zimiztaper
hegalka doa
hegalka doa

Ziztuka treina, ta su eskopetak
suziri zirina
Eramaiten gaitu leizetik
zintzilik zerura

7-Le train

*Monte dans mon train, il ne va nulle part
insatiable, il n'est jamais complet*

*Mon train subit tant d'attaques
dès lors qu'arrive la longue saison*

*Sur l'habit sombre courent les vagues
les vapeurs de névés*

*Le train siffle, le fusil détonne
un bolide inquiet
nous embarque du précipice
en suspens vers les cieux*

*Dans les allées arborées, insouciant
l'axe resserré, il s'en va au loin*

*Dans mon train se reflètent les ombres
depuis la locomotive jusqu'au dernier wagon*

*Mon train n'a jamais de retard
quand bien même on y perdrait ses heures*

*D'une fougeraie vers la voûte d'un éclair
il prend son envol
il prend son envol*

*Le train siffle, le fusil détonne
un bolide inquiet
nous embarque du précipice
en suspens vers les cieux*

8-Ez da han bakarrik

Ez dira han bakarrik
argizagi sukoiaki baztertzen
penak urratu gauean

Ez da han bakarrik
harrapakinen gisa bide egiten
handikeri ilun ta urrun bateruntz

Ez da han bakarrik
egun-argia
zapaltzaileen hizkuntzan itotzen
akidura ta noraezak zuhaizturik
Ateraldi bat arantzaz beteriko ~
harresietan

Ez da han bakarrik
jarrera hori hartzen
fronteruntz begira

Ez da han bakarrik
xelebrekeriekin amildegia ~
tronpatzen
ontzia portuari lotua

Ez da han bakarrik
ehiztaria atxilotzen
ziega batean mozkor
ustez eta ihes eginen duela

Bihozbera kantan
perekak berdatu
burdinezko marka

Zalapartaria, haurren gisa
jolasparkean trebatzen

Egunak moteltzen doazela
harrotzen trenpuak
zerratzen pasabideak

Ez da han bakarrik
nazio bat baztertzen

Berinezko estalki batean
hazten den lore ximeldua

Ez da han bakarrik

8-II n'y a pas qu'ailleurs

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on isole les astres colériques
la nuit mutilée de chagrin*

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on chemine comme une proie
vers les grandeurs opaques et ~
lointaines*

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on inonde le jour
de la langue des conquérants
reboisé de fatigue et d'errance
En excursion sur un rempart d'épines*

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on prend la pose
le regard porté vers le front*

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on trompe l'abîme avec du ~
pittoresque
le vaisseau ligoté à son port*

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on enferme les chasseurs
enivrés dans un cabot
duquel ils croient s'évader*

*L'indulgence
chante une marque au fer
verdie de caresses*

*L'agitateur, tel un enfant
s'exerce dans le parc à jeux*

*Les journées au ralenti
échauffent les humeurs
condamnant les passages*

*Il n'y a pas qu'ailleurs
que l'on isole une nation*

*Fleur fanée que l'on cultive
sous une cloche de verre*

Il n'y a pas qu'ailleurs

9-Harrazue herria

Harrazue herria
konkistari eman doinua

Ekarrazue zuen dirdira
etenaldira

Harrazue herria
deiadarra kleronak kanta
gorritu erreka

Makurrak garbi
zimiztan abia zedila
kabalkada

Gutaz egizue irri
bainan ezteki

Ekarrazue zuen dirdira
etenaldira
Ekarrazue zuen dirdira

Harrazue herria
konkistari eman doinua
Botekin, burrunbaka
eta ohituretz
jabe izan zaitzela

Harrazue herria

Ekarrazue zuen dirdira

Ekarrazue zuen dirdira

9-Prenez le pays

*Prenez le pays
entonnez la conquête*

*Revêtez votre éclat
jusqu'au grand déclin*

*Prenez le pays
claironnez votre appel
empourprez les rivières*

*Expiez donc vos fautes
Propulsez d'un éclair
la grande cavalcade*

*Riez donc de nous
mais avec douceur*

*Revêtez votre éclat
jusqu'au grand déclin
Revêtez votre éclat*

*Prenez le pays
entonnez la conquête
Faites sonner vos bottes
puis de la coutume
faites-vous donc les maîtres*

Prenez le pays

Revêtez votre éclat

Revêtez votre éclat

10-Mirakuilua

Pentzeak lorez bete ditzen
mirakuilu baten zain dago
Ta soilik zanpaka aitzurra,
lanaren deia

Lurraren izerdi garratzean
desegin ziren usainak
Galdu kantuen aireak
hausnarketak

Ernal ahal balire
errepira lehorrak
desertuak
desertuak

Lur errea urez busti du
ungarria zizelkatu
Laparrek estalirik zerua
uzkurtu da

Lurraren izerdi garratzean
hezur muinean

Mirakuilu baten zain dago
erne, taupada oro
Ta soilik zanpaka haizea
oihuka bazizkorra

Mirakuilu baten zain dago
erne, taupada oro
Ta soilik zanpaka haizea
oihuka bazizkorra

Lurraren izerdi garratzean
desegin ziren usainak
Galdu kantuen aireak
hausnarketak

Ezinezkoa bilakatu zen
lorautsen dantzaldi hura

Ernal ahal balire
errepira lehorrak
desertuak
desertuak

Loretan balire
errepira lehorrak
desertuak
desertuak

10-Le miracle

*Dans l'espoir que les prés fleurissent
il attend un miracle
Et seuls frappent la pioche
l'appel du labeur*

*Dans la sueur acide de la terre
les parfums se sont dissous
Nos chansons égarées
nos pensées*

*Si l'on pouvait rendre féconds
les plaines arides
les déserts
les déserts*

*Il a arrasé la terre brûlée
sculpté dans le fumier
Un ciel couvert de ronces
l'a fait se replier*

*Dans la sueur acide de la terre
dans la moelle de ses os*

*Le miracle il l'attend
sur le qui-vive au moindre battement
Et seuls frappent le vent
la grêle et ses hurlements*

*Le miracle il l'attend
sur le qui-vive au moindre battement
Et seuls frappent le vent
la grêle et ses hurlements*

*Dans la sueur acide de la terre
les parfums s'étaient dissous
Nos chansons égarées
nos pensées*

*Il était devenu impossible
au pollen de mener son bal*

*Si l'on pouvait rendre féconds
les plaines arides
les déserts
les déserts*

*Si l'on pouvait faire fleurir
les plaines arides
les déserts
les déserts*

11-Gatza

Bizia piztu
eripuntetaik pittinka
sinesgarri litaiken

Isil isilik
botaion gatza gorpuari

Sudurluzeetaz gorde
botaion gatza, zerrazkin begiak
jan ez ditzan harrak

Josan azala
argi-zirrintaz babestu

Besoetan harzan
sendizan tinkatzean
zoin den pizua

Palto zeit emaian
sendotu dadila
Gatzunetan bustizan
petik gora

Haragia
garbiki motzan

Banazan

Haragia

Zaharmindua
zoin den pizua
Harran eskutik
eta dantza

Botaion gatza

Botaion gatza gorpuari
sudurluzeetaz gorde

Zerrazkin begiak
irentsi hire beldurrak
Eraman gaitzan azken geltokira
azken geltokira

11-Le sel

*Donner la vie
du bout des doigts, par pincées
on pourrait y croire*

*En silence
répands le sel sur son corps*

*Préserve-toi des curieux
répands le sel, ferme les yeux
que le ver ne les ronge*

*Recoude-lui la peau
protège-le de l'aurore*

*Prends-le dans tes bras
serre-le fort et sens
combien il est pesant*

*Donne-lui un manteau
qu'il en soit fortifié
Trempe-le dans la saumure
de haut en bas*

*La chair
découpe-la proprement*

Distribue-la

La chair

*Devenu rance
combien il est pesant
Prends-lui la main
puis danse*

Répands le sel

*Répands le sel sur son corps
préserve-toi des curieux*

*Ferme les yeux
ravale tes peurs
Dépose-nous au dernier arrêt
au dernier arrêt*

12-Ufa dezan haizeak

Atera oihal-hegalak
jauzi egizan leizean
Gailur higatuak urrun
ibar zabal bat azpian

Suge bat laino xurian
marrartzuz hoa airean
Pausazkin hire beldurrak
pizti horren hegalpean

Ufa dezan haizeak baina
goibeltzen bazaun zerua
Hitzemaidan nitaz urrun
ihes eginen dunala

Utzan isurtzen curia
lizardietan behera
Odol pozoiak direno
biak elgarri lotuta

Ufa dezan haizeak baina
goibeltzen bazaun zerua
Hitzemaidan nitaz urrun
ihes eginen dunala

Ilargipean kantazan,
ereinzan hezurren hautsa
Gauak ez diaun ez sekula
gorde heriotz hurbila

Ufa dezan haizeak baina
goibeltzen bazaun zerua
Hitzemaidan nitaz urrun
ihes eginen dunala

12-Que souffle le vent

*Déploie ailes et voiles
jette-toi dans le gouffre
Au loin les sommets érodés
au-dessous une vaste vallée*

*Un serpent de nuages
que tu traces dans l'air
Dépose donc tes craintes
au creux de son aile*

*Que souffle le vent, cependant
si ton ciel s'assombrit
Promets-moi que loin de moi
tu te seras enfuie*

*Laisse donc couler la pluie
le long des forêts de frères
Tant que sang et venin
resteront mêlés*

*Que souffle le vent, cependant
si ton ciel s'assombrit
Promets-moi que loin de moi
tu te seras enfuie*

*Chante donc au clair de lune
sème donc la poussière d'os
La nuit elle, n'a jamais cherché
à cacher notre mort prochaine*

*Que souffle le vent, cependant
si ton ciel s'assombrit
Promets-moi que loin de moi
tu te seras enfuie*

Inbasioak

2023ko primaderan grabatutako diskoa

Zuzendaritza artistiko, testu, konposizio, moldaketa eta orkestrazio lan guztiak Ekhi Lambert-ek obraturik

Musikariak

Ekhi Lambert – Ahotsa, gitarrak, sintetisadoreak

Joseba Irazoki – Gitarrak

Ludovic Leriche – Pianoa, teklatuak

Oihan Oliarj-Ines – Basua, sintetisadorea

Félix Buff – Bateria, sintetisadorea

Oiasso Kamerata

Biolin 1: Tomas Ruti, Leire Hipolito,

Alejandro Vázquez, Anaís Burgos

Biolin 2: Maider Aizpurua, June Berges,

Cristina Vértiz, Pablo Gutiérrez

Biolak: Maite Colás, Bittor Alkain,

Imanol Martínez, Miren de Diego

Txeloak: Misael Lacasta, Iratxe Paredes,

Alejandro Saúl Martínez, Tetiana Mertelova

Uritze Laka – Flauta, piccolo

Eñaut Saldumbide – Gaita

Jean-Victor Suzanne – Klarinetea

Jon Caliot – Tronpeta

Jérôme Capdepont – Tronboia

Miguel Etcheverry – Bibrafonoa

Peio Erramouspe – Sintetisadoreak, sound design

Maddi Sanz – Harpa

Teknika

Johannes Buff (Shorebreaker estudioa) – Grabaketa, nahasketa

Kaki Arkarazo (Garate estudioa) – Soken grabaketa
Benoît Bel (Mikrokosm estudioa) – Masterizazioa

Azala

Elsa Parra: Argazkiak

Amaia Arbeleche, Elisa Di Primo, Sophie Tatin
(Latsaga zalditokia): Zaldien prestakuntza eta gidamendua

Mari Campistron & Pierre Tandille: Grafismoa eta maketazioa

Eskerrak

Maiana Irigoyen

Elorri Falxa

Amairu Ephér

Isabelle Brivet

Frank Suarez

Mirentxu Mateo

Monique Mateo

Béatrice Mateo

Informazioak

+33 (0) 652 21 51 26
ekhi.lamb@gmail.com

forbiddencolours.net



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CATUREL
BASQUE

SK
pays
basque
EUSKAL
HERRIA
—
COMMUNAUTE
D'OROLOGIATION
BASQUE
ELKAROGIA

